

Elkartasuna Valentziako ikaskideekin

Otsailak

29

ikasleen borroka eguna!

Orain dela egun batzuetatik Valentziako kaleak bizitzen ari dira garai frankista gogora ekartzen diguten situazioz. Ehundaka istiluen aurkako polizia, PPko Gobernuako delegatuaren aginduak jarraitzen, kargatu dute basati bigarren hezkuntzako ikasleen aurka. Beraien delitu bakarra era baketsuan manifestatu hezkuntza publikoaren alde eta Valentziako Generalitatearen murrizketen neurrien aurka. Luis Vives eta beste ikastetxe batzuetako ikasleak, poliziaren basakeriaren biktimak dira 70. hamarkadako garai frankista ekarriz gogora. Ikasle baketsuak era baketsu batean manifestatzen direnak era basati batean kolpatuak izan dira. Poliziaren jokabide horretan, irainak eta isekak izan dira onartuak. Ez da kasualitatea, inori ez zaio ihes egiten PPren erabakia biolentzia erabiltzeko ikasleen aurka: gazteak kikildu nahi dituzte gure eskubideengatik ez borrokatzeko, baina ez dute lortuko.

Ikasle Sindikatutik berriro azpimarratu nahi dugu gure elkartasuna Valentziako ikasleekin, Luis Viveseko ikaskideekin, atxilotuei eta beraien familiei. Exijitzen dugu atxilotutako kide guztien askapena, Gobernuako Delegatuaren eta Barneko Ministroaren berehalako dimisioa, bermea ematen dietela diktadura baten propioa den jokabide bati.

Ikasle Borroka eguna otsailaren 29an

Valentziako gure ikaskideak orain dela aste batzuetatik mobilizatzen ari dira zerbait justua denarengatik: kalitatezko hezkuntza publikoa. Orain dela zenbait urtetatik, PPko gobernua Generalitatean ezarrita, batez ere hezkuntzaren aurrekontuak murriztu ditu hezkuntza pribatuari mesede eginez. Enpresariak diru laguntza publikoekin aberasten ari diren bitartean, Herrialde Valentziarreko ikastetxeak azkar degradatuz joan dira: milaka ikaslek klaseak barrakoietan dituzte, elektrizitate mozketak ugarituz doaz eta berogailurik ez daukate geletan, irakasleak kaleratzen dira eta masifikazioak egunetik egunera jasangaitzagoa egiten da. Estatuan gainerako ikastetxeetan antzerako irudia aurki dezakegu. Eta PPko gobernu zentralak, bere murrizketekin hezkuntzan, situazioa okerragotuko du.

Pasa den hilaren 16an, Ikasle Sindikatuak Valentziako komunitate osoan greba bat deitu zuen eta masiboki jarraitua izan zen: gelak hutsik geratu eta manifestazioak jendetsuak izan ziren. Valentziako hiriburuan 20.000 ikasle baino gehiago hiriarren erdigunea hartu zuten eta milaka gehiagok Castellongo, Alacanteko eta beste hainbat hirietako kaleak bete zituzten. Egun hori baino lehenago milaka ere irten

ginen kalera gure irakasle eta gurasoekin batera, Madrilen, Katalunian, Nafarroan, Galizian, Andaluzian eta gainontzeko Estatuan gertatu bezala.

PPren gobernuak, mespretxu argi batekin gure aldarrikapenei eginez, soilik eraso gehiagoeekin jakin du erantzuten, errepresioarekin eta gezurrekin. Ez du gazteriaren ahotsa entzuten. Ez du gure ikastetxeei dirua bideratzen. Baina errekurtsio publiko ugari erabiltzen ditu bankariei oparitzeko, gas negargarriak erosteko eta beraien dauden komunikabideak ziurtatzeko gazteriaren etorkizunaren borrokan hauen kriminalizazioa.

Eskumak bere ahultasun izugarria erakusten du: argumentu gabe kolpeen errekurtsioa aurkezten du. Bai, gazteak eta langileak gehiago eta gogorragoak gara. Otsailean zehar milioika langile, langabe, pensionista eta gaztek Euskal Herriko eta gainontzeko Estatuko hiriak bete zituzten Rajoyren gobernuak onartutako lan erreformaren aurka. Enpresariei aske uzten dion erreforma bat gazteak esklabizatzeko, ordaintzeko soldata negargarriak eta gainera ez duena lana sortuko, milaka kaleratze erraztu baizik. Hori bai, dohainik.

Lan Erreformari erantzunez ELA eta LABek Euskal Herrian eta CIGak Galizian dagoeneko deitu dute Greba Orokor egun bat hurrengo martxoaren 29rako, Ikasle Sindikatuak bat egiten duena eta uzte dugu bateratua izan behar dela. UGT eta CCOO batu behar dira grebara bai Euskal Herrian baita Galizian ere, eta aldi berean gainontzeko Estatu Espainiarrean deitu. Hezkuntzaren murrizketak austeritate plan baten parte dira, ez daukate aurrekaririk. Burgesiaren eta FMIaren planak atzera botatzeko, mobilizazioak ahalik eta zabalenak izan behar dira. Grezian edo atzerapauso izugarriak jasaten ari diren beste herrialde batzuetan bezala.

Horregatik Ikasle Sindikatuak borroka egun batetara deitzen dugu otsailaren 29an, Estatu osoko ikasleekin batera Valentziako gure kideekin elkartasunean eta baita ere martxoaren 29ko Greba Orokorren prestaketa bezala, langileekin batera. Ezkerreko era-

Aski da...

...Poliziaren errepresioaz
...hezkuntza publikoko murrizketaz
...gazte langabezia

Kontzentrazioak

Gasteiz: 12etan Correos plazan

Bilbo: 12etan Arriaga antzokiko plazan

Kontaktatu / Batu zaitetz Ikasle Sindikatura
Tnoa: 945 231202; 656 714818
bizkaia@sindicatodeestudiantes.net
araba@sindicatodeestudiantes.net
nafarroa@sindicatodeestudiantes.net

kunde eta ikasle kolektibo guztiak deitzen ditugu ekintza batasunera. Indarrak bateratzeko eta gazteriaren ahotsa eta gure nahiak entzuteko kalean gobernuaren murrizketen eta errepresioaren aurka.

Egun honetarako ikastetxe guztietan asanbladak egi-tea proposatzen dugu, ikaskide valentziarrekin elkartasun ebazpenak sinatzea, Gobernuko delegatuaren, Barne Ministerioaren eta Polizia buruaren dimisioa exijitzea... Beharrezkoa da irakasleen eta gure gurasoen laguntza eskatzea, Valentzian ikusi den bezala milaka irudi eta bideoetan. Gure alboan daude eta suminduta poliziaren jokaerarengatik. Eta garrantzitsuena, 29an klaseak gelditu eta kontzentrazioak eta manifestazioak antolatu hiri eta herrietan. Ikasleak ez gara kriminalak. Etorkizuna gara eta horregatik borrokatuko dugu. Gure gurasoek diktadura frankista bota bazuten, guk bere karakter autoritarioa erakutsi duen gobernu baten murrizketak eta errepresioa garrantziko dugu.

**Aski da gazteriaren aurkako errepresioa!
Injustuki atxilotutako ikasleen berehalako askapena!**

Aski da autoritarismoz! Valentziako Gobernuko delegatuaren eta Barne Ministerioaren dimisioa!

Ez murrizketei. Defenda dezagun hezkuntza publikoa!

Ez irakasleen kaleratzei! Errekurtsio publikoak hezkuntza publikorako eta ez negozio pribatua gizentzeko diru laguntzentzat.

Aski da gazte langabezia eta enpresen esklabizazioaz! Ez lan erreformari!

**Langile eta ikasle, batuta eta aurrera!
CCOO eta UGTk martxoak 29ko Greba Orokorra zabaldu behar dute PPren erasoak eta kontraerreformak geldiarazteko!**

